

BERBETAN PATXI URANGA HARAKINA · GEHIGARRIA KILIBARREN · KULTURA EDUARDO ARRILLA-
GAREN "SOKAMUTURRA" LIBURUA AURKEZTUKO DA, GAUR, BARIKAKUA, KULTUR ETXEAN

BARIKAKUA



EL GOIBARKO ASTEKARRIA · 2001eko abenduaren 14a/IX. urtea/386. zkia

"Sokamuturra: beldurraren irribarrea"

JERTSEA 7.500 pta.

BIDAIIA POLTSA 7.950 pta.

NEZESERRA 1.950 pta.

BEROHIA 30.900 pta.

JAKA 28.750 pta.

ALHANDORA 7.975 pta.

Sara
Errosario, 14 - Tel. 943 743 555

ITURAIN & ASOC.
ZERBITZU INMOBILIARIO INTEGRALAK
CONSULTING GROUP

ELGOIBARKO ERDIGUNEAN

,Leku Ederren,



- ETXEBIZITZAK
- . 2, 3 eia 4 logeia
- Egongela-jangela
- . Sukaldea
- . 2 bainugeia.



- GARAJE PLAZA ITXIAK
- KOMERTZIORAKO LOKALAK
- KALITATEZKO ERAIKUNTZA
- ORDAINKETARAKO ERRAZTASUNAK

PROMOZIOA eta SALMENTA Muno, S.A.
Trenbidearen Zumardia 13-15 • AZKOITIA
Tel. 943 157 007 • 609 473 933

INFORMAZIOA iturain & Asoc.
San Frantzisko, 44 • Tel. 943 748 801
Tel. 670 412 073



Egunak

Giza Eskubideen Nazioarteko Egunarekin hasi genuen amaitzeko dugun astea. Eskubideak eskubide, bakoitzak gertuago sentitzen dituenak defenditzen ditu. Mundu zabalean asko da berarentzat eskatu eta hurkoari ukatzen dionik. Dena dela, garai txarrak dira Giza Eskubideentzat, eurei eskainitako egun bat izateak erakusten duenez. 365 egunen artean bat izendatzen badizute... malo!

Hilaren 1 ean HIESaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen, eta joan den hilean Euskararen Eguna. Datorren astean, hilaren 20an, gaixorik dauden haurrekiko elkartzasuna eskatzen duen Eguna izango da. Egunak ez ezik urteak beharko litzuketuen kausak dira. Eta gero eta gehiago dira, gainera. "Betiko" martxoaren 8ko Emakumeen Eguna edo maiatzaren leko

Langileen Egunari berriak erantzen ari zaizkie etengabe. Eta munduak daraman martxarekin, 365 egunetako bakoitzean izango da zer edo nor gogoratu. Tamalez, egun bateko keinuak izaten dira, baina kaltetuek euren berri eman eta konponbideak aldarrikatzeko esku-artearen daukaten tresna bakaffetalcoa.

Mota horretako izen ofizialik ez daukaten Egunak datoz. Alaitasun, Anaitasun, Elkartasun eta ez dakit zenbat -tasun gehiagoko egunak. Espejismo hutsa. Gabonen ostean denak berdín jarraituko du. Hala ere, polita litzateke urtean zehar euren Eguna dutenak gogoratu eta haien alde keinuren bat egitea, besterik ez bada.

Montse Arregi



Berdinetan gaude

Zenbat gauza egin ditugu azken 6.238 egun eta gau guztietan zehar; zenbat irakaspen erakutsi dizkigun bizitzak, eta heriotzak; zenbat lagun egin eta zenbat aldendu; zenbat etsai gehitu. Zenbat bide-seinale, errepide eta kilometro igaro ditugu eta edozein bihurtuneren ostean, STOP KONTROL (eta hauen erremintak ez dira latexkoak prezisamente), hori bai demokratikoki inposaturiko estatu-poliziala, gure segurtasuna bermatzeko omen dira. Gure? Noren?

Zenbat estuasun eta zenbat poz izan ditugu iraganeko 204 hilabeteetan. Zenbat aldiz egin dugu negar, bai pozez zein tristuraz, ezintasunak edo gorrotoak erditu dituen malko errekek, behea jota jaiki eta laguna bizkarrean hartuta aurrera egiten jarraitzen dugularik, etsaiak nahiko lukeen moduan zuloan gelditu beharrean, eta beraiek agintzen duten pentsamendu bakarretik aldenduz eta kontsekuente izanik gure pentsakera eta ekintzekin. Honegatik guztiagatik hainbat eraso pairatu behar izaten ditugu. Ikusten direnak: presoek eskubideen (edo koiunturak ez du hala eskatzen?) alde lan egiteak erakunde armatuko kide bilakatzen zaitu eta, ikusten ez direnak, aurrekoa moduko erasoak kalean salatzeagatik, egurra. Baina hemen ere ikasi dute, eraginkorragoa da buruarekin porrak apurtu beharrean, ekonomikoki itotzen saiatzea, horrela herri honen garrasi gordina isilaraziko dutelakoan.

17 urte Jaio eta Iriondo barruan daudela, 17 urte Motza sakabanatua egon ondoren, berriro gurean dela, apa hi!, eta 17 urte pasa ondoren, Olaia eta Anabel modukoek aukera bera egin dute, zergatik ote?

Nestor Fuentes

NOTIZIA

Kexak 5
motz MOtZ 6
gehigarria 13
kiRolAk 22
aGencia 28

PRES.O.S JAIO, IRIONDO, MENDI ETA LARIZ ETXERA

Elgoibarko Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformak eta Senideak-ek, Espainiako konstituzioaren arabera ere ilegala den dispersioa salatu nahi dugu, gure 4 hiritar eta lagun egoera horretan baitaude. Jaio eta Iriondok kondenaen 3/4-ak beteak dituzte eta etxean behar luketela esateko manifestua egin dugu, Udaleko plenoan aurkezteko.

Gure helburua, Udal honek, euskal presoak Euskal Herriratzearen alde lehen ere egindako azalpena baieztatzeaz gain, bere hiritarren gaineko kezkarik baduela azaltzea da: kalean izan behar ziren, baina bahiturik daude azken 2 urteetan; hurbilean behar zuten, baina urruti dauzkate zigorturik... Asko eskatzea al da gure ordezkariak, Udaleko norbait, beraien egoeraz arduratzeko eskatzea? Herriaren partehartzea behar dugunez, herriaren atxikimendu kanpaina eratu dugu azaroan: jadanik gizarteko eta alderdi desberdinetako 350 hiritarren sinadurak bildu ditugu. Azaroaren hasieran bilera bat eskatu genuen Alkatzarekin (Udalean presoekin batzordea aktibatzeke), gai ordena eta guztiarekin, gure mozioaren asmoa adieraziz. Oraindik ez dugu erantzunik jaso. Udal honek ez du ohizko plenorik egin azaroan, pleno ez-ohizkoak egin ditu, bai azaro eta abenduan eta, noski, gure moziorik ez da bertan sartu. Ez dakigu abenduan ohiko plenorik egiteko asmorik duten.

Oraindik denbora dugu, Gabonak baino lehen, gure Udalaren jarrera ikusteko: ea gure alkatzak bere hiritar presoenganako sentsibilitate hori baduen jakiteko, eta bere hiritar askoren atxikimenduari kasu egin dion ala, gure alkatzak espainol zapaltzaileen biktimenganako sentsibilitate hutsa duen, beraien legea ez betetzearekin ados dagoen, gaur eguneko "estado de excepcion"-a babestuz. Ni, benetan, pesimista naiz...baina ez dut itxaropenagaldurik nahi.

I.O.S. 15364490.

EPEH plataformaren izenean.

CUSCOREN ALDEKO DEIALDIA

Peruko *Cusco* herriaren alde Misqui taldea egiten dabilen diru-bilketan lagundu nahian, lagun-talde bat elkartu gara eta datorren Gabon Zahar ferian (abendua 29, zapatua) taldeak eta edariak eskainiko dituen txosna antolatzen gabilta.

Txosna Urruzuno kalean ipiniko dugu, Udaberri eta Aizpiri artean, eta batzen dugun dirua Misqui taldeak *Cuscorako* daukan proiektua aurrera ateratzeko izango da.

Hori dela-eta, jendea behar dugu Feria egunean taldeak egiteko eta barran zerbitzatzeko, eta laguntzeko dei egiten dizuegu herritarroi.

Interesatuok eta lanerako prest zaudetenok, zatozte abenduaren 18an (asteartea), 19:00etan, Kultur Etxean egingo dugun batzarrera, eta han azalduko dizuegu dena.

Gu geu *Cusco*

A.I. NAN: 15.380.764

Urruzunoren begi ezkutua



Geltokiak baino leku hotzagoak egiten hasita, ez dakit gune inpersonalagorik osatzen asmatuko genukeenik. Aldi batez soilik egoteko direnaren aitzakian, funtzionaltasunaren disenatzaileek estaltzen ez duten estalpeak prefabrikatzen dituzten.

Apurtezinak ziruditen aukiak lehen, apurte gabe zertan dauden aukiak orain. Itxoinen doakigu bizitza, bitartean. Agur sentituentzako eskenatoki borobil eta ongiatorri desiratuen tristetzailerik. Nola jantzi abegikortasunez, ordea, errepidearen eranskin hutsok, trenbideen bidegurutzetako soilok. Begirada dantza eta nora doa, nola dabil. Nondik ateratakoa da, zer ote darabil buruan.

Mikel Artola

ASTEKARIA


BaRRen

Nafarroa enpara nta, 2
20870 ELGOIBAR
r 943 74 41 12
Publizitatea:
r: 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide infarmatikoa:
vrtvw topagunea.comfbarren
ARGITARATZAILA
Elgotark Izarra

LAounruataa Elgoibarko Udala **ZUZENDARIA** Eli Aizpuru
KAZETARIAK Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea Pusurrates
Andeez Agirregomezkorta **MAKETATZALEA** Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA Amaia Rodriguez Geerawruz Jon Peli
Uriguen Kotasomozzairmc Ainhoa Lodoso, Nestor
Fuentes, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto
Ansuategi. Edume Bilbao, Golzon Arrieta, Jon Peli
Uriguen. Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Olga
Unzila, IdormseArregi, Juanito Gorostiza, Jon
GurnIsaga, Jon Eugi, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta
Urruzuno L.T. **AZALEKO ESAERA ZAHAMLA** Golzon
Rarateren liburutik **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA**
4.025 ale **LEGE GORDAILE/A** SS-1.038f92 ISSN 1139-1855

ELGOIBAKKO EZARRA
11.17 " LLLL XLA

Elgotarko Ltdalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aidizkaria.



1:3

ritx kutxa
zun esker

DANOBAT
M.111.5 11...11.111

GAUPO DANOBAT

ESTARTA
GRUPO 0.10.7

11111111




- Gizon gazte bat etorri zaigu BARREnera **Aita Agirre Plazan** aparkatzeko dauden arazoak direla-eta kexatzera: "Astelehenero pentsuen kamioia etortzen da deskargatzera eta kotxeak espaloi gainean aparkatu behar dira kamoia sartuko bada, behintzat. Askotan, ordea, espaloi gainean egoten direnez, etxetik irten eta ezin izaten garapasatu. Zerbait egin beharko da, horrela ezin dugu jarraitu".



- Emakume batek honako kexa hau azaltzeko eskatu digu: "**Plaza Txikiko kontenedoretan, basura ontzietatik kanpo** lagatzen du jendeak. Askotan, kanpoan hainbesteko pila egoten denez, ezin izaten dugu geuk ere basura barrura bota, kanpokoak traba egiten digulako. Jendeari kontenedoreak zerbaitetarako daudela esan nahi diot. Nan-askeria bat da kanpoan basura lagatzea".

- Emakume batek *karakola* **konpontzeko ardura hartu dutenak** txalotu nahi ditu, "oso txukun gelditu da", esan digu. "Hala ere, ez al litzateke hobe izango poste horietan farolak jartzea? Gainera, argiaren tomak ere badaudela kontuan hartuta... Bertatik ibiltzen garenontzat **argi gehiago** egotea alde izugarria litzateke", **proposatu** du emakume honek.



- Euskaltzale batek honako txalo hau ekarri digu: "**ARIGERA** proiektuak prestatutako **Berba Laguna** programan parte hartzen ari diren euskaldun zaharrak txalotu nahi ditut. Benetan baloratzekoa begitantzen zait asteen ordubete euskaldun berriei eskaintzea. Euskaldun berriek ere estimatuko eta eskertuko diete".

- **Ikastolako 4. mailako** bi ikaslek **gurasoak** txalotu nahi dituzte: "Abenduaren 2an, domekan, Kalamuara irteera eta bazkaria antolatu zituzten eta egun ederra pasa genuen. Dena oso ondo antolatuta zegoelako txalotu nahi ditugu gurasoak".

Barreak, Birrak eta Barreak



AtxuDdamaika eta GAZ-T aisialdi taldeek egun pasak eta negulekuak antolatu dituzte abonetarako

Gabonetako oporretan asper ez daitezen hainbat irteera eta ekintza antolatu dituzte Atxutxiamaiika eta GAZ-T aisialdi taldeek. LH 4-5 eta 6. mailakoek eta DBHkoek Bilboko PIN parkera joateko aukera izango dute abenduaren 27an lehenengoak eta 28an, besteak. 1.500 pezeta ordaindu beharko dituzte eta bazkaria beraien kontura izango da. Bestalde, Haur Hezkuntzakoentzat eta LH 1-2 eta 3. mailakoentzat, negulekuak antolatu dituzte abenduaren 26, 27 eta 28rako eta urtarrilaren 2, 3 eta 4rako. Goizez izango dira eta haur bakoitzak 3.500 pezeta ordaindu beharko ditu. Izenematea abenduaren 19ra arte egin ahal izango da, aurrez diru sarrera Kutxan egin eta ordainagiria Elgoibarko Izarrara eramanez.

XIII. mendeko aztarnak aurkitu dituzte San Bartolome kalean

Hezurak, larrua, txanponak eta zeramika topatu dituzte

an Bartolome kaleko 8. zenbakian eraikuntza berri bat egiteko etxea bota zuten baina XIII. mendeko aztarnak aurkitu dituzte eta eskabazioak egiten hasi dira. Izan ere, aurrez kale berean beste etxe batzuk bota zituztenean eraikuntze n azpi an aztarnak egon zitezkeen susmoa izan zuten, eta orain lortu dute susmo horiek egiaztatu ahal izateko eskabazioak egiteko baimena.



Lokatz artean kontserbatuta

"Arkeolan" taldea ari da ikerketa lanetan eta garai hartako harresiaren ondoko zuloan hainbat hondakin aurkitu dute. Hiru astez aritu dira lanean eta, besteak beste, hezurak, larrua, orratzak, txanponak, zeramika... topatu dituzte

lokatz artean. Eraikinak harresiaren gainean egin dituztenez, eta zuloan oxigenorik sartu ez denez, desegin gabe kontserbatu dira garai hartako aztarnak. Zuloa zakarrak botatzeko erabiltzen zen. Beraz, era askotako hondakinak daude. Muestrak hartu ostean, bulegoan azterketa eta informe bat egingo dute. Izan ere, inguruko herri askotan topatu dituzte Erdi Aroko harresien aztamak.

Lapurretak izan dira Elgoibarko hainbat denda eta enpresatan

Bestalde, Elgoibarko gazte bat atxilotu dute Donostian auto bat harrapatu eta barruan zeuden taloiak kobratzen saiatu zeiaiko

Jai zubia aprobetxatuz, lapurrak tentu handiz ibili dira eta "Uzuri" optikan kristala hauntsita, eskaparate bateko materiala ostu dute. Larunbatetik igandera bitarteko gauean izan zen lapurreta eta guztira 300.000 pezeta inguruko galera izan dute. Uzuri Larrañagak berak adierazi digunez, "ez da dendan kalteak eragiten dizkiguten lehen aldia, botilekin-eta argiak apurtu izan dituzte, baina oraingoan lapurtzera ere iritsi dira".



Zubian ez ezik, orain dela 15 egun Sallobenteko bi enpresatan lapurretak izan ziren. "Doimak"-en, dirurik ezean, ezin izan

zuten ezer eraman, baina kalteak nabariak izan zirela adierazi digute. Bernardo Ezenarron ere izan omen da lapurretarik.

Elgoibartarra atxilotuta

Ertzaintzak J.M.R.Q. 23 urteko elgoibartarra atxilotu zuen joan den ostiralean, hilaren 7an, Donostiako San Martin Kaleari. Ustez auto bat lapurtu eta bertatik ostutako taloiak kobratzen saiatu zen. Milioi eta erdi pezetako taloi bat kobratzeko ahalegina egin zuen Donostiako banketxe batean, baina ez zioten dirurik eman nahi izan. Banketxearen inguruan harrapatu zuten ertzainek eta autoaren giltzekin batera beste bi bankutatik jasotako milioi bat pezeta aurkitu zizkioten gazteari.



Aurten urrezko ezteiak bete dituzten 8 bikote omendu zituzten jubilatuen biltokian

Jubilatuen astea luze joan da Elgoibarko biltokian. Hitzaldiak, txokolatada, zozketak eta nola ez, bazkaria ere izan da jubilatuentzat. Azaroaren 29an denek batera bazkaldu zuten eta 80 urtetik gorakoek, hauen ezkontideek eta aurten urrezko ezteiak bete dituzten 8 bikotek omenaldia jaso zuten. Lore sorta eta oroigarria jaso zuen bikote bakoitzak, Gillermo Garate alkatearen eta Mari Tere Iraegi, Ongizate Saileko zinegotziaren eskutik. Bazkal ostean, Gelatxorekin dantzaldia izan zuten ospakizuna ondo borobiltzeko.



Japoniar batek 2,5 Kilorekin egindako paella jan zuen ordubetean Belaustegi jatetxean

Telebista produktore japoniar batek antolatutako lehiaketa batean 20 urteko Nobuyo japoniarrak hiru nafarren aurka neurtu zuen bere abilezia edo apetitua. San Migel bailarako Belaustegi jatetxean jarri zuten zita eta bertako sukaldariak, Josu Mugerzak, prestatu zuen paella. Ontzi bakoitzean 2 kilo eta erdi arroz eta osagarri ugari zeuden eta ordubete nahikoa izan zuen japoniarrak garbi uzteko. Nafarrek, berriz, erdia jan aurretik utzi egin zioten lehiari. Honela bada, euskaldunon jatun fama atzean utzi zuen gazte japoniar honek.

60 lagun inguru elkartu ziren HIESaren Aurkako Nazioarteko Eguneko ekitaldietan

Joan den abenduaren leian HIESaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen. Elgoibarren gaitzaren kontrako lanean diharduen Errotatxo elkarteak hainbat ekitaldi antolatu zituen. Kale antzerkiaren ostean, 60 lagun inguru elkartu ziren Plazan HIESAz hildakoei omenaldia egiteko. Aureskua dantzatu eta gero egunerako prestatutako komunikatua irakurri zuten. Bertan ezinduen dekretua HIESaren aurkako mugimenduek jakin gabe onartu zela salatuta zuten. Errotatxokoek Haritz D.T., Txistulari taldea, Gaztetxekoak eta hurbildu ziren guztiak eskertu nahi dituzte.



Jose Angel Iriondo ehiztari elgoibartarrak 138 kiloko basurdea bota du

Sollubeko (Bizkaia) lurretan, joan den azaroaren amaieran, 138 kiloko basurdea ehizatu zuen Jose Angel Iriondo elgoibartarrak. Basurdeak 22 zentimetroko letaginak zituen, eta horrek urrezko dominaren kategoria ematen dio. Ehiztariantzako oso sari preziatua **da hau**. Iriondok bi tiroz hildako basurdearen burua disekatzeko asmoa dauka.



Euskaldunok 110.000 pta. gastatzen ditugu, bataz beste, Gabonetan

NORMALEAN BAINO DIRU GEHIAGO GASTATZEN AL DUZU GABONETAN?



MANOLI ARRIZABALAGA
60 urte, garbitzailea

Nik hori baino gitxiao, baina normalian baino gehixao gastatzen da. Beti eitxen da zeozer diferentia: bilobentzako, jatekua ere bai... Gehixao gastatzeko pronto eoten gera gainera.

JUAN IGNACIO AGIRRE
27 urte, langabetua

Ohi baino zertxobait gehiago bai, batez ere Ioteria eta zozketen kontuan. Beste gauzetan, gastuak mantentzen saiatzen naiz. Ez dut uste hainbeste gastatzera iristen naizenik.



CONSUELO MEDIAVILLA
61 urte, etxeandrea

Ez diet prezioei begirutzen, iristen zaidanera arte gastatu eta kitto. Zenbat eta senide gehiago elkartu, gastuak ere gora egiten du: opariak, bazkaria eta afaria ere ohikoa baino garestiagoa izaten dira.

TXOMIN ULAZIA
57 urte, kamioilaria

Buelta horretan ibiltzen naiz. Gehixao jaten da eta loterixan ere gastatzen dou. Erreza da zifra horretara ailegatzea, garai honetan eon ere gehixao eoten danez, gastau ere halaxe eitxen da.



JOSE MARI SAN MARTIN
36 urte, mekanikoa

Ez, gurasuen etxera juten gera eta bakoitzak ez dot uste hainbeste gastatzen dogunik. Andrian etxian "lagun ezkutua" eitxen dogu eta hola einda, erregaluetan behintzat, gitxiao gastatzen da.

M. JESUS ASTIGARRAGA
49 urte, enplegatua


Ez dakitx, ez dot sekula konturik atera-eta. Gehixen janarixan gastatzen dala pentsatzen dot, baina 110.000 pezeta gehixegi hegixantzen jata.



ESKERTZA

2001eko azaroaren 24an, 78 urte zituela hil zen EUGENIO LARIZ MUGURUZAREN sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak.

Meza izango da Altzolan, igandean, hilak 16, goizeko 11:00etan.





agenda

Abenduak 16, domekia

9:30 MENDI IRTEERA 1KASTOLAREKIN

Andutz-Itzar

Irteera: Ikastolatik

Antolatzailea: Elgoibarko Ikastola

9:30 MENDI IRTEERA HERRI ESKOLAREKIN

Elgoibar-Karakate

irteera: Plazatik

Antolatzailea: Herri Eskola



Amaja Vegasek Durangoko akordeoi lehiaketa irabazi du

Inazio Bereziartua Musika Eskolako Amaia Vegas Alvarezek Durangoko Bartolome de Ertzilla kontserbatorioko akordeoi lehiaketan lehen saria eskuratu

zuen 10 eta 11 urtekoen kategorian. Sailkapen fasean "Divagando" eta "Banda Rompitimpani" obrak jo zituen. Finalean, berriz, beste bi lehiakideren aurretik geratu zen, soinua jotzeko duen trebetasuna erakutsiz.

Mendizale taldea sortu dute Herri Eskolan gaztetxoek mendizaletasuna bultzatzeko

Gaztetxoek artean mendizaletasuna bultzatzeko asmoz, Herri Eskolako guraso batzuk mendizale taldea sortu dute. Hilean behin mendi irteera bat antolatuko dute. Lehenengo irteera joan den azaroaren 25ean egin zuten Ahtolatilik abiatu eta Xoxotera (909m.). Eguraldia lagun izan ez bazuten ere, 50 lagunek ibilaldi polita egin zuten eta baita elur-zuloa ikusi ere. Mendizale taldean izena eman dutenek Karakatera egingo dute hurrengo irteera.



Pilar Ikastetxeko gaztetxoak Tolosako txotxongillo jaialdian eta Sastarrain haserri eskolan izan dira

Pilar Ikastetxeko L.H. 3. eta L.H. 4. mailako ikasleek Tolosara egin zuten irteera azaroaren 27 an. Txotxongilo jaialdiaren XIX. edizioa zela-eta, "El palacio de papel" eta "Angefica, la fuga", antzezlanak ikusteko aukera izan zuten. Egun hartako programazioa oso aberatsa

izan zenez, ikasleek primeran pasa zuten Tolosan.

Sastarrain baserri-eskola

Bestalde, DBH 1 mailako ikasleek Zestoako Sastarrain baserri eskolan hiru egun igaro zituzten.

Bertan hainbat ekintza interesgarri egin zituzten: ukuiluen garbiketa, baratzeko lanak, ibilaldia zaldi gainean, ogiak egiten ere aritu ziren... Bertako begiraleei eta irakasleei esker oso pozik eta gustura pasatu zituzten gaztetxoek hiru egunak.



LH3 eta LH4




DBH1

Eduardo Arrillagaren "Sokamuturra" liburua aurkeztuko da gaur, barixakua, Kultur Etxean

Jarraian, argazki erakusketa zabalduko da urtarrilaren 6ra arte

Eduardo Arrillaga argazkilaria eigoibartarrak argitaratu berri duen "Sokamuturra" liburua aurkeztuko da gaur, barixakua, arratsaldeko 19:15ean. Kultur Etxean egingo da aurkezpena eta Edu Arrillaga bertan izango da. Jarraian, Herriko Dulfzainero taldeak udaletxetik Kultur Eixeraino kalejira egingo du. Ondoren, Ongarri argazki kolektiboak antolatuta, liburuko 36 argazkiren erakusketa zabalduko da.

Edu Arrillagak IO urte pasa ditu Elgoibarko sokamuturraren erretratuak ateratzen eta lan horren ondorioz, argitaratu ahal izan du "Sokamuturra: beldurraren irribarrea" liburua. 60 argazki aukeratu ditu 92 orrialdeko bilduman eta Koldo Lizarralderen eta Jasone Osororen idatziekin jantzi du lana. "Argazki asko kanpoan gelditu dira, baina liburuaren



kalitatearen onerako, aukeraketa egin behar izan dut", esan digu autoreak.

Herritar askoren laguntza ere eskertu nahi izan du Eduk: "Esponsorren laguntza eskertu nahi dut, beraiek gabe ez baitzen

liburua argitaratuko: Danobat, Udaleko Kultura Saila eta Ongarri. Kolaboratzaileak ere bai: Jasone Osoro eta Koldo Lizarralde. Gurutze Gorrikoak, argazkiak ateratzerakoan egindako zauriak sendatu dizkidelako eta "Arno" zezenzaleak, molestatzen egon arren, soka mugitzeko orduan, beti kontuan hartu nautelako".

Liburua 2.500 pta. erakusketan

Argazki erakusketa zabaltzen denetik urtarrilaren 6ra bitartean, 2.500 pta. tan eskuratu ahal izango du liburua bertara agertzen den edonork. Liburu dendetan, berriz, 3.000 pta. balioko du. Erakusketa gaur zabalduko da, arratsaldeko 20:00etan, Kultur Etxeko erakusgelan. Honakoa da ordutegia: asteleheneetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara bitartean, eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.

"Bestelako Zinea"-ren programa berezia eskainiko da Gabonetan

"Zinea Gabonetan" deitu diote zikloari eta guztira 8 film ikusi ahal izango dira

Ongarri Zine Klubak eta Udalak, herriko ostalaritzako hainbat etxeren laguntzarekin, "Bestelako Zinearen" emanaldi berezia antolatu dute Gabonetarako. Ziklo berri honi "Zinea Gabonetan" deitu diote. Datorren egunean, hilaren 20an, hasi eta urtarrilaren 7ra arte, 8 film ikusi ahal izango dira guztira. Arlo desberdineko pelikulak daude: "Road movie" motako filmetatik hasi eta kontakizun fantastikoetaraino. Tartean, bada thriller komertzialik ere. Horrela, "Road

movie" edo "karreterako film"-en artean, "Y tu mama tambin" edo "Cuba feliz" ikusi ahal izango dira. Kontakizun fantastikoak dira "Amelie" edo "La isla" eta, thrillerren artean, berriz, "The score" eta "Intacto" filmak daude. Saioak 22:15ean hasiko dira.

Zinea Gabonetan

"Y tu mam tambi&"	Abenduak 20	"Moulin Rouge"	-- Abenduak 29, 30 eta
"The Score" -----	Abenduak 22 eta 23		Urtarrilak 1
"Y tu maM tambffin"	Abenduak 25	"Intacto" -----	Urtarrilak 2 eta 4
"La isla" -----	Abenduak 26	"Amelle" -----	Urtarrilak 3,5,6 eta 7
"Cuba feltz" -----	Abenduak 27		

Amaia Ovejero eta Jose Alberto Eguren izan dira Morkaiko Mendizale Bkarteak antolatutako argazki lehiaketaren irabazleak –

Irabazleak, Amaiak, 30.000 pta. jaso ditu eta J.Albertok, publikoaren saria, 20.000 pta.



"liarritzko zuhaitza", Amaia Ovejerok Bolivian ateratako erretratua,



"Zuhaitz artian" erretratua Urbian atera zuen J.A. Egurenek.

"Harrizko zuhaitza" izenez, Amaia Ovejerok lehiaketara aurkeztutako argazkia aukeratu du epaimahaiak Morkaiko Mendizale Elkartearen sariketako irabazle izateko. Bolivian udan ateratako erretratua da Amaiaarena. Berak 30.000 pezetako saria eskuratuko du. Bestalde, erakusketara joan eta gogoko argazkia aukeratu zuten ikusleek boto bidez. J.A. Egurenen "Zuhaitz artean"

Guztira 34 lan aurkeztu dira Morkaikok antolatutako argazki lehiaketara

argazkia izan da, hain zuzen ere boto gehien eskuratu dituen. Urbian ateratako argazki honekin 20.000 pezeta irabazi ditu. Bisitarien laguntza ere saritu nahi izan du Morkaiko Mendizale Elkartek eta botoak eman dituztenen artean liburu bat

zozketatu du. Mendiko liburu hau Idoia Astigarragari egokitu zaio.

Guztira 34 lan aurkeztu dira Morkaikok antolatutako lehiaketara. Antolatzailleen esanetan, "aurreko urtean baino maila bajuagoa egon da. Parte hartzaileak gutxiago izan dira, iaz 40 lan inguru baitziren. Hurrengo urtean herritarrak erretratuak aurkeztera animatu nahi ditugu".

"Jara" izeneko liburua kaleratu du Jasone Osorok

Batez ere, 12 urtetik gorako ga7tetxoentzako da

"Alfaguara-Zubia" argitaletxearekin "Jara" izeneko liburua kaleratu berri du Jasone Osoro idazle elgoibartarrak. 13 urteko Jara izeneko **neskatila du** protagonista, eta neskari lehen aldiz hilerokoa jaisten zaionetik gertatzen zaizkion aldaketak kontatzen dira liburuan. Besteak beste, gurasoekin diuten arazoak, gustuko mutilarekin dituen kontuak eta Iagun minarekin duen konplizitatea azalduko ditu. Adin horretako gazteek dituzten gorabeherak, hain zuzen ere.



Liburua 12 urtetik gorako nerabeei zuzenduta dago batez ere, baina heldupk irakurtzeko modukoa ere badela esan digu Jasone Osorok. "Adin horretako neskak baliteke liburua irakurtzean identifikatuta sentitzea. Mutilentzat, berriz, ate baten giltzaren sarrailatik begiratzea bezalako zerbait izan daiteke".

Jasonek udan idatzi zuen liburua. Pasa den astean, berriz, Durangon ikusi ahal izan zen bere azken lana eta dagoeneko, liburudendetan eskuragai duzue.

"Oihane" laburmetriak bigarren saria eskuratu du Lekeitioko lehiaketan

Jasone Osororen gidoian oinarritu eta Oihane Garate elgoibartarra protagonista dituen "Oihane" izeneko laburmetriak, bigarren saria eskuratu du Lekeitioko Zine eta Bideo lehiaketan. Zuzendaritzaz, errdalizazioaz eta editajeaz Raul Lopez de Gereñu eta German Rubio arduratu ziren. Aurrez Audi auto etxeak antolatutako "Sobre ruedas" laburmetriaren sariketa irabazi zuen "Oihane"-k, eta hau eskuratzen duten bigarren saria da.



Ihintza Beristain
Ariznaharreta
Jesus Maria eta Jone
Miren. Azaroak 2.




Josu Unzilla
Sanchez
Jesus M. eta Alina.
Azaroak 23.



Jon Gisasola
Mgrquez
Lazaro eta Luisa
Maria. Azaroak 10.



Nora Viña Raña
Jesus eta Ana Isabel.
Azaroak 25.



Zorione Cuesta
Alberdi
Julio eta Isabel.
Azaroak 13.



Ander Garth
Villagarcia
Gerardo eta Maria
Lourdes. Azaroak 26



Ane Kortaberria
Bilbao
Jose Maria eta
Edurne. Azaroak 15



Aimar Arrieta
Arrizabalaga
Tomas eta Maite.
Azaroak 27



Amaia Astigarraga
Iriondo
Juan Luis eta
Garbiñe. Azaroak 20.



Nerea Lizarraga
Gurrutxaga
Jesus M. eta Maite.
Azaroak 27.



Iker Kortazar
Astigarraga
J. Ramon eta Agur-
tzane. Azaroak 22.



Yerai Uribarri
Muñoz
Alberto eta Estibaliz.
Azaroak 30.

AZAROA

EZKONTZAK

Luis Santamaria
eta M. Angeles Linares.
Azaroak 3

J. Juan Gabilondo eta
Felisa Iranzo.
Azaroak 24

Angel M. Agirrezabala
eta M. Garblile Hoyo.
Azaroak 24

HILDAKOAK

Paquita Ondarre,
91 urte, azaroak 1

Teresa Oñederra,
77 urte, azaroak 4

Andres Cearsolo,
73 urte, azaroak 10

M. Luisa Osoro,
77 urte, azaroak 12

Silvino Santos,
74 urte, azaroak 13

Jesus Alonso,
86 urte, azaroak 13

Maria Bastarrika,
89 urte, azaroak 24

Eugenio Lariz,
78 urte, azaroak 25

Ana Mari Olasolo,
57 urte, azaroak 26

Juliana Lete,
93 urte, azaroak 25


Juana Loyola,
84 urte, azaroak 26

ETXYBERRIA.

Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

KUTXAK TRASLADOAK .KOROAK



**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56

(Mobila) 608 77 07 01



PartE hartu nahi duzu gurEkin EuroarEn jokoan?

Zenbat balio du?

asteko saria eman diote, baina ez daki zer eros dezakeen diru horrekin. Lagundu Aneri erosten, eta lotu gezen bidez gauza bakoltza dagokion prezioarekin.



Tazoak

1,8€



pokenion-en eideo-zinta

0,3€



9zozkia

12€

Zinemarako b(arteia)

1€



Euroaren herrialdeak

Ea diru bakarra (euroa) hartuko duten herrialdeak aurkitzen dituzun letra-zopa honetan.

PMSBELGIKAEHE
 OTRFRANTZIAOS
 RAYUZGREZIALP
 TIFINLANDIAAA
 UTIRLANDAUXNI
 GAEXMIDUOZDN
 ALEMANIATMIA1
 LIPIPLAUSTRIA
 DANLUXEMBURGO

"Ia Cabta"ren opariak zure zain daude. Parte hartu Euroaren Jokoa eta...



2012cCE Ofi!



Lehiaketaretiolarriak:

EUroctren Jokoa hitu probek osatzen dute: Proba horietan, diru berriari buruz dakizun guztia erakutsi behar duzu.

- Eman proba guztien erantzuna.
- Adierazi zure datuak erantsita doan txartelean.
- Ernan foileto hau zure "Caixa" buiegoan.

Megalibretak zozketatuko dira erantzun zuzenak eman dituzten guztien artean.

Ikaslearen datuak:

Ikastetxea.....
 Maila..... Adina.....
 Izen-abizenak.....
 Helbidea Tel.....
 Herria..... PK



"la Caixa"

Errosariol Tel. 943 744 512

D Sustondo, S.L.

EDARI BANATZAILEAK

San Roke, 32-34 (Instituto parean)
Tel. 943 740 992 • Mugikorra: 639 938 974





BaRRen

Kontsezio Eguna aspath zutein abenduaren Banu Garagartza auzoan Garagartza elizako patroia den Ama Birjiña Sortzez Garbia omendu zuten

Eguna laino artean esnatu zen arren, mendarotarrak goiz jaiki ziren Kontsezio Eguna ospatzeko. Goizeko 10etan, Mendaroko Bizi Poza Txarangak dantzaldia eskaini zuen herriko kaleetan zehar, giro hotza apur bat berotuz. Bost urte pasa dira dagoeneko Bizi Poza txaranga sortu zenetik, eta gaur egun, 20 lagunek osatzen dute. Eguerdiko 12etan, Meza Nagusia izan zen Garagartzako elizan, eta bertan, Mendaroko Eliz Abesbatzak abestu zuen. Besteak beste, meza amaieran "Agur Kontsezio Birjiña Maria, hona hemen zure aurrean Mendaroko herria" abestu zuten. Meza bukatu ostean, dagoeneko tradizio bihurtu den ohitura bati ekin zioten: eliza-



ra hurbildu ziren guztiei, gailera eta ardo goxoa eman zitzaizkien dastatzeko. Eliza ataria jendez gainezka zegoen, baina guztiek izan zuten beren parte. Azken finean, Ama Birjiña Sortzez Garbia omenduz, egun handia ospatu zuten Garagartza auzoan.

Artola sukaldariak Gabon jakien demostrazioa eskaini zuen Aizpe sozidatean

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Lagun Betikoak Jubilatuen Egoitzak, Gabon jakien demostrazioa antolatu du. Iragan asteartean izan zen lehenengo jardunaldia, eta hilaren 18an bukatuko da. Sukaldari lanetan Jesus Artola aritu zen, eta itsasapoa erromatar erara prestatu zuen. Antolatzaile lanetan Arantza Arrieta aritu da, eta berak esan zigunez, "Gabon garaian urtero antolatzen ditugu horrelako jardunaldiak, eta jendea oso gustura etortzen da. Sukalde lanetan trebatzeaz gain, emozio apur bat ere izaten dute jardunaldi hauek: errifa bat antolatzen dute ikusle guztien artean, eta tokatzen zaionak, prestatutako jakia irabazten du. Aipatu beharra dago, bestalde,



mendarotarrak oso ondo moldatzen direla sukalde lanetan; izan ere, Lidia Arias eta Asun Ulazia izan ziren eskualdeko marmitako lehiaketaren irabazleak. Gipuzkoako txapelketan ere lan txukuna egin zuten bi hauek, baina oraingoan bigarren postuan sailkatu ziren.

Kilimonek lehen garaipena lortu zuen

Hamabi jardunaldiren ostean, Kilimonek bere lehenengo garaipena lortu zuen. Etxekoak galtzen hasi ziren arren, gogor ekin zioten lanari, eta azkenean markagailuari buelta ematea lortu zuten. Ez zen norgehiagoka erraza izan, baina azkenean garaipena eta hiru puntuak Kilimonentzat izan ziren. Aipatu beharra dago, Soraluekoek bi jokalaria gutxiagorekin bukatu zutelarik partidua. Epailearen lana erabat kritikatu zuen kanpoko taldeak. Izan ere, bi atezainak kanporatuak izan baitziren. 90. minutuan bestalde, etxekoek aldeko penaltia pitatu zuen, eta borri esker irabazi zuen Kilimonek. Dagoeneko bost puntu dituzte mendarotarrak, eta azkeneko postutik atera dira. Hala ere, datorren jardunaldian Ilintxari irabaztea ezinbestekoa da, atzeko postuetatik aldentzeko.

Olentzero arratsaideko 16:00etan

Urtero bezala, abenduaren 24an Olentzero iritsiko da Mendarora. Arratsaldeko 16:00ak inguruan aterako da Garagartzako elizatik, eta herriko kale guztiak zeharkatuko ditu, haur guztien eskariei erantzuteko.

Herriko Zentsua

Estatistika Euskal Institutuaren laguntzaz, herriko zentsua berritzen ari dira egunotan. Herritarren kolaborazioa eskatzen da, oso garrantzitsua baita Mendaron bizi diren biztanle guztien datuak zentsuan jasotzea.

KiliBaRren Kolaboratzailea: Ainhoa Andonegi.

— Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

BASERRIKO PRODUKTURIK ONENAK IKUSI ETA PROBATZEK(

Kontsezio azoka tradizio bihurtu da mendarotarrantzat. Aurtengoan apur bat atzeratu bada ere, dena prest dago, eta urtero bezala, denetarik ikusi ahal izango da Mendaroko frontoian. Baserriko produkturik onenak eskuratzeko aukera paregabea izango dute bertara hurbiltzen direnek. Barazkiak, fruta, eztiak, ogia, gazta edota txokolatea dastatu gabe, ziur ez dela inolr etxeratuko. Honetaz gain, artisaupostuak ere izango dira: artileak egiten, zestogintzan beste batzuk, eta zeramika lantzen ere arituko dira. Aurtengoan, berrikuniza bezala forja beld bat jarriko dute, eta burdina nola lantzen den erakutsiko digute. Honekin guztiarekin batera, hegazti eta ganaduen erakusketa ere izango da. Ohiko arrazetatuz gain, emua eta oreina ekarriko dituzte aurten.

Ana Mari Mallabiabarrena, azokako saltzaile mendarotar bakai

"Betidanik gustatu izan zait a

na Mari jaiotzez allabiko den arren, 28 urte daramatza Mendaron. Lasalde baserrian bizi da, eta bihar, bera izango da azokan mendarotar bakarra. Ana Marik esan digunez, horrek baditu bere abantailak: "Herri txikia da, eta denek ezagutzen nautenez, oso ondo saltzen dut". Zazpi urte daramatza azokara joaten. "Betidanik gustatu izan zait azoka mundua. Oso gazte hasi nintzen azokara joaten, eta ahal dudan bitartean jarraitu egingo dut". Ana Marik bihotzean darama azoka. Mendaroko Kontsezio azokaz gain, Eibar, Mutriku, Elgoibar eta Debara joatea ere gustatzen zaio, baina aurten Mendaroko azokan bakarrik hartuko du parte: "urte txarra izan da, eta ez dago produkturik. Normalean, 30 elikagai desberdin eramaten ditut azokara, eta aurten erdiarekin joango naiz. Eguraldi kontua izango da akaso,



baina aurten oso sagar gutxi dago, ez daukagu urrik, ez kiwirik ezta espinakarik ere. Ez dakit zer gertatu den". Hala ere ilusio handia dauka, eta familia guztia dauka berari laguntzen.

Erosteko ohiturak aldatu


Erosteko ohiturak asko aldatu dira. Gaur egun gazte jendeak ez dauka

azokan erosteko ohiturarik, eta gainera, ez dute baserriko lana apreziatzen: "kaleko jendeak ez daki baserrian zenbat lan egiten den. Produktuak azokara eraman aurretik landu egin behar dira, garbitu eta dena txukun-txukun jarri jende aurrean erakusteko". Hala ere, lan honek merezi duela esan digu. Izan ere, produktu batzuk dirutza handia ematen dute: "Errezil sagarra oso ondo saltzen da, baina aurten oso gutxi dagoenez, garesti dago". Ana Marik badauka berarena soilik den produktu bat: "orain arte menbriltoa saldu izan dut oso ondo. Etxean egiten dut, eta sagar mota bakarrarekin egin beharrean, sagar desberdinak nahasten ditut. Nire

"Bertakoa izanik, denek ezagutzen naute eta asko saltzen dut"

zaten zaio, baina aurten Mendaroko azokan bakarrik hartuko du parte: "urte txarra izan da, eta ez dago produkturik. Normalean, 30 elikagai desberdin eramaten ditut azokara, eta aurten erdiarekin joango naiz. Eguraldi kontua izango da akaso,

"Aurte gutxi dagurrik, ez dak"



I. Kontsezio azoka

) AUKERA IZANGO DA BIHAR MENDAROKO FRONTOIAN

a zoka mundua"

ustez askoz hobea da. Honekin batera, intxaurrekin egindako menbriloea ere eramaten dut azokara, baina ez dauka horrenbesteko arrakastarik. Lan gehiago dauka, eta prezioa ere garestiagoa da. Enkarguz saltzen dut Bilboko dena batera, baina bestela ez dute gehiegi eskatzen".

Azoka eguna fetxaz aldatuta

Normalean Kontsezio azoka, Konstituzioko zubian izaten da, baina aurten atzeratu egin da. Ana Marik esan digunez, berak nahiago du zubian izatea, horrela kanpotik ere jende gehiago etortzen da eta: "Ez dakit bihar jendeak nola erantzungo duen. Urterik onena aurrenekoa edo bigarrena izan ziren. Eguraldi bikaina egin zuen, eta jai eguna zenez, jende asko etorri zen kanpotik. Jendeak asko erosi zuen, eta produktu batzuren bila etxera joan behar izan genuen berriro".

oso sagar ez daukagu lz kiwirik... it arrazoia"

Horrek bizipoza ematen dio Ana Mariri, hainbeste lan egin ostean, produktu guztiak etxera bueltan eramatea oso gogona da. Urtero bezala, Ana Marik kalitate handiko produktuak aurkeztuko ditu bihar, eta ziur arrakasta izango duela.

Agurtzane Etxaniz, DEBEMENeko teknikaria:

"Baserriko produktuak kalean ezagutarazi nahi ditugu"

- Zer ikusiko dugu bihar Kontsezio azokan?

Denetarik egongo da, barazkiak gehienbat. 15 postu egongo dira guztira. Ogia, pastela eta barazkiak egongo dira ikusgai. Bestalde, artisauak ere etorriko dira, bakoitza bere ofizioan. Batzuk artileak egingo dituzte, gomazko pelletak nola egiten diren ere ikusi ahal izango dugu, lora lehorren erakusketa ere izango da, eta zestogintzan arituko dira beste batzuk. Ganadu eta hegazti exotikoak erakusketa ere izango da.

- Azoka urtetik urtera asko aldatzen al da?

Ez, baina aurten bada berrikuntzarik: artisauen aldetik, burdina nola lantzen den ikusteko aukera izango dugu. Ganadu aldetik ere, urteroko arrazetaz gain, aurten emuak eta oreinak ekarriko dituzte.

- Zein izan da azoka atzeratzeko arrazoia?

Normalean Konstituzioko zubian egiten zen, baina jendea kanpora joaten omen da, eta azokara ez zen jende gehiegi hurbiltzen. Aurten atzeratzeko aukera izan dugu, Mutrikuko Santo Tomas

azoka datorren astean da-eta.

- Jendeak bala dauka azokan erosteko ohiturarik?


Erosteko ohiturak asko aldatu dira. Gazte jendeak denetan erosteko joera gehiago du. Hala ere, jendeak azoka eta kalitatea lotu egiten ditu, eta badaki apur bat gehiago ordaindu arren, kalitatezko produktua erosiko duela.

- Zer saltzen da gehien?

Ogia eta pastela dira jendeak gehien eskatzen dituen elikagaiak. Aurten bi postu bakarrik izango dira produktu horiekin, bestela ogi eta pastel azoka bihurtuko litzateke-eta.


- Zein da azokaren helburua?

Baserriko produktuak kaleko jendeari ezagutzera eman nahi dizkiogu. Baserrietan kalitatezko produktua lantzen da, eta kontsumitzaileari erakutsi nahi diogu. Gure asmoa, azoka folklore hutsa baino zerbait gehiago izatea da.



Erretratu zaharra



\.....0  abete honetako erretratua Marciano Santamartak laga digu. 1966an ateratakoa da "Playero"-en finalean atera zuten. Mendarotarrek finala galdu zutela esan digute. Hauek dira erretratuan agertzen direnak:

Zutik, ezkerretik eskumara:

Xabi, Beraza, Leizabe, Jauregi, Txomin Aranberri, ezezaguna, eta Marciano Santamarta.

Makurtuta: Ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, Arregi eta Pablo Agorria.

wer, DEBA
diger GARAIA

INMUEBLE AGENTZIA

Errosario, 34-1 ezk • Tel 943 744 283 Faxes: 943 744 253

MALAPE
TABERNA DISKOTEKA
ALOKATU EDO SALTZEN DA
Instalazio egokiekin
eta funtzionamenduan.




PINTURAK

PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilon, 2.3.sotoa - 943 74 36 52 - 74 27 89


KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA


ABENDUAK 15 goizeko 9etatik eguerdiko 2etara



AZOKA
FRONTOI INGURUAN

11etan txistorra, salda eta ardo banaketa doan





ZINEA GABONETAN

ANTOLATZAILIAK: ONGARRI ZINE KLUBA • ELGOIBARKO UDALA





"Giokela"-k urtebete egin du. Gipuzkoako harategietan eros dezakegun okela, "Giokela", baserriar eta harakinen arteko elkarlanaren fruitua da. Elgoibarren "Giokela"-ren garantia eskaintzen duen harafegi bat dugu, San Bartoime kalean kokatua dagoen Panci Uranga, hain zuzen ere. Berarekin solasean aritu gara.

"Giokela"-ren garantiak konfidantza ematen du"

• "Giokela"-ren lehen urte hau nola baloratuko zenuke?

Urte oso emankorra izan da. Kontsumitzaileen artean oso harrera ona izan du eta gure bezeroek benetan eskertu dute berme osoko eta ziurtatutako haragia erosi ahal izatea.

■ "Giokela" ziurtatutako haragia dela diozue. Zer esaten duzue zehazki eta zer da eskatzen duzuen?

Ziurtatutako haragia izateko, prozesu guztia, baimendutako erakunde inpartzial batek kontrolatua izan behar du. Kontrol honek, kontsumitzaileari segurtasuna eta kalitatea bermatzen dio. Ikuskatzaile lanak egiten dituen erakunde hau, "Certicar" da. Bere eginkizuna, kate osoa kontrolatzea da: ikuilutik hasi eta harategian saltzen dugun azken xerraraino. "Giokela"-ren ziurtagiria duen haragi guztia,

Gipuzkoako baserrietan gizendutako haragia denez, oso erraza zaigu prozesu guztia kontrolatzea, esku-eskura daukagu-eta.

"Zoritxarrez, Euskal Herrian, behikiaren kontrol prozesuak ziurtatzeko, ez dugu baimendutako erakunde inpartzialik"

• Zer jan du "Giokela" markako okela ematen duen ganaduak?

Elikadura guztiz naturala da. Animalia eta arrain irinik, berriz, ezta usaindu ere ez du egiten gure ganaduak, are gutxiago hormona eta antzeko sustantziarik. Horrek ematen digu kontrol guztiak lasai pasatzeko segurantz. Badakizue, zer jan, hura izan!

• Baina zer da "Certicar" erakunde?

"Certicar" erakunde, behikiaren kontrol prozesuak ziurtatzeko, estatuan (45.011 arau europarraren arabera) baimenduta dagoen erakunde bakarra da. Gu ere, honek zertifikatzen gaitu, noski. Kontrol zorrotz hauek, eskaintzen dugun produktuan oraindik eta konfidantza gehiago izatea eragin digute. Zoritxarrez, Euskal Herrian oraindik ez dugu "Certicar"-en mailako erakunderik. Epe laburrean horrelakorik izatea ezinbestekoa ikusten dugu.

• Hemendik aurrera, zein asmo duzue?


"Giokela" gehiago sendotzea eta zabaltzea nahi dugu, hori baita kontsumitzaileak nahi duena. Honekin batera, harakin eta baserriarren arteko elkarlana sendotzea lortu behar da alderdi guztien lanaren errekonozimendua eta errentagarritasuna lortzeko.

PATXI URANGA

InonuoTABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 • Tel: 943 74 00 15



01 E RKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan
konponduko dizugu igogailua

943 82 01 09 Faxe: 943 82 01 62

Indalezio Ojanguren 2, beheka • 20600 EIBAR

Elgoibarko Igeriketa Taldeak Oñalin hasi zuten denboraldia

Benjamin eta alebin mailako igeriketa denboraldia pasa den azaroaren 24an hasi zen Oñatin. Bertan, Elgoibarko Igeriketa Taldeko 12 igerilarik hartu zuten parte. Nahiko ondo aritu ziren igerilari elgoibartarrak eta batzuk marka apartak egin zituzten. Honako hauek dira 50 metro libreko proban bizkorren igeri egin zutenen denborak: Jagoba Egaña (44'12"), Josu Espilla (47'00"), Julen Etxeberria (48'04"), Jonathan Garcia (48'41") eta Alex Jorge (51'37"). Bestalde, Alba Zangituk, Jone Larrailagak, Josu Atxak, Julen Etxeberriak, Eneritz Aizpitartek, Alejandra Pascualek, Josu Espillak eta Jagoba Egañak 8x25 errelebo mixtoko proban hartu zuten parte eta 3'55" izan zen egin zuten denbora.

Yugoslavia, Frantzia, Errusia, Bulgaria, Euskadi eta Espainiako jokalariek izango dira XI. Nazioarteko Xake Txapelketan

Oleg Korneev da abenduaren 22an amaituko den txapelketa irabazteko faborito nagusia

Gaur (hilak 14) eguerdiko 12:30ean egin dute XI. Nazioarteko Xake Txapelketaren aurkezpena, Kultur Etxean. Gaur hasi eta abenduaren 22ra bitartean egunero jokatuko dituzte partidak 16:00etatik 22:00etara. Aipatzekoa da aurtengo edizioan Yugoslavia, Frantzia, Errusia, Bulgaria, Euskadi eta Espainiako jokalariek izango ditugula gure artean.

10 xakelari

Maisu handi eta nazioarteko maisu mailako 10 xakelari arituko dira nor baino nor, Felix Izeta (2474 ELO), Mario Gómez (2499 ELO), Iñigo Argandona (2271 ELO) eta Santiago Gonzflez (2292 ELO) euskaldunak, Víctor Vehi (2453 ELO) espainiarra, Eugeni Janev (2487 ELO)

suitzarra, Vladimir Georgiev (2564 ELO) bulgariarra, Vladimir Lazarev (2564 ELO) frantziarra, Aleksa Strikovic (2506 ELO) yugoslaviarra eta pasa den urteko irabazlea, Oleg Korneev (2554 ELO) errusiarra. Aurtengo edizioak 11. maila mantentzen jarraituko du.



16:00etatik 22:00etara bitartean jokatuko dira partidak Kultur Etxean.

Taldekako lehen postua lortu zuten Mintxetako atletek Muskizko krosean

Mintxeta-Egondo taldeko 40 korrikalarik hartu zuten parte proban

Mintxeta-Egondo Atletismo Taldeko 40 aintxintxikari gaztetxok hartu zuten parte Muskizko Krosean **pasa den** abenduaren 9an. Aurre benjamin, benjamin, alebin, infantil eta kadete mailan hartu zuten parte elgoibartarrek, eta mutilek taldekako lehen postua eskuratu zuten maila guztietan lortutako postuak kontutan hartu ostean. Honako hauek dira posturik



aipagarrienak lortu zituzten atleten izenak. **Mut**ilen benjamin mailan Borja Diez izan zen irabazlea eta Julen Conde 6. postuan sailkatu zen. **Infantil mutiletan** ere elgoibartar batek irabazi zuen proba, Aitor Arrillagak, hain zuzen ere. Kadete mutilen mailan, Antton Alberdi eta Ibai Azkoitia 5. eta 6. postuetan sailkatu ziren, hurrenez hurren. Azkenik, nesken kadete mailan Dorleta Aranberri 5. postuan helmugaratu zen.

3 milioi pezeta banatuko ditu Udal Kirol Patronatuak herriko 16 kirol klubean artean

Sanlo Eskubaloi Taldeak jasoko du diru gehien, 519.939 pta.

Elgoibarko 16 kirol klubek jasoko dituzte Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak urtero banatzen dituen diru laguntzak. Aurten 3 milioi pezeta banatuko ditu Patronatuak, iaz baino 250.000 pezeta gehiago, alegia. Taldeek jasotzen duten dirulaguntza kopurua klubek aurkeztutako memorien datuetatik lortzen da, 97an onartutako dirulaguntzen araudiaren arabera. Dirulaguntzak emateko hainbat datu hartzen ditu kontutan Patronatuak: klubek Eskola Kirola programan duten partaidetza, Patronatuko bazkide kopurua, federatu lizentzia kopurua, **entrenatzaileen** prestakuntza teknikoa, taldearen **konpetizio** maila eta Gurean Bai, euskararen aldeko

hitzarmenari eskainitako laguntza, besteak beste. Datu hauen balorazioa egin ostean, kirol talde bakoitzak puntu kopuru bat eskuratzen du, eta azkenean, puntuak diruz trukutzen dira. Diru gehien jasoko duen Kirol taldea Sanlo Eskubaloi Taldea izango da, guztira 519.939 pezeta jasoko baititu eta gutxien, berriz, 66.102 pezeta, Zubi-Ondo Xakea taldeak.

DIRULAGUNTZEN BANAKETA			
KLUBA	DIRULAGUNTZA	KLUBA	DIRULAGUNTZA
Eskubaloia	519.939 pta	Lagunak pilota	136.151 pta
C.D. Elgoibar	368.989 pta	Txusko Moto Klub	114.446 pta
Ibai Kluba	282.168 pta	Pedrusko	106.553 pta
Minbesta Allelismo T.	278.222 pta	Igeriketa	100.000 pta
Ur-Bizi Buzeoa	249.000 pta	Saskibaloia	82.875 pta
Lagun Taldea	202.253 pta	Urgazi Triatloia	76.955 pta
Areto Futbola	188.441 pta	Zarta Arkuzko Tiraketo	66.102 pta
Olaizaga K.T.	166.736 pta		

Ansola-lazarobaster bikoteak Gipuzkoako Pilota Txapelketako finala jokatuko du Irunen



Lagunak Pilota Eskolako Ansola eta Lazarobasterrek osatzen duten bikoteak Gipuzkoako Txapelketako finala jokatuko du abenduaren 22an, zapatuan, Irunen. Seniorretako hirugarren kategorian jokatu ditu partiduak bikote elgoibartarrak. Finalerdietan Añorgako ordezkariak irabazi ostean lortu dute finalerako sailkatzea. Joaneko partida 22 eta 17 irabazi zioten Landa eta Mendizabalek osatutako bikoteari eta itzulerakoa, berriz, 21 eta 22. Finala Ordiziako Txapa-Gain Elkarteko pilotarien aurka jokatuko dute. Bestalde, seniorretako bigarren kategoriari dagokionez, Balzola eta Muguruza txapelketatik kanpo geratu dira, finalerdietako bi partiduak galdu baitituzte Zelaia eta Artetxe azpeitiarren aurka.

EMAITZAK

Futbola

Urola 1 - Haundi 3 (Pref.)
Haundi 1 - Ordizia 0 (Pref.)
Elgoibar 3- Kilimon 1 (1. erreg.)
Segura 4 - Elgoibar 0 (1. erreg.)
Elgoibar 1 Aurrera Ond. 0 (Jub.)
Bergara 3 Elgoibar 2 (Jub.)
Elgoibar 6 - Intxurre 0 (Kad.)
Aitzgorri 1 - Elgoibar 1 (Kad.)
Amaiak-Bat 1 - Elgoibar 2 (Inf.)
Elgoibar 5 - Ondarroa 0 (Inf.)
Elgoibar 2 - Ilintxa i (Neskak)
Arrasate 2 Elgoibar 1 (Neskak)

Esku pilota

Gipuzkoako Txapelketa
Finalaurrekoak
Landa/Mendizabal 21 (Afiorga)
Ansola/Lazarobazter 22
Zelaia/Artetxe 22 (Itunpe)
Muguruza/Balzola 16
Ulazia/Loiola 22
AlkortWSorrarain 20 (Emlope)
Egia/Arano 22 (Gazteleku)
Agirrebeitafirondo 16
Agirrebefia/Iriondo 22
Beristain/Goenaga 13 (Azkoitiako)

Rezola/Elola 9 (Gazteleku)
Ulazia/Loiola 22

Eskubaloia

Pagoaga Elg. 25 - Zuazo 11 (Kad. nes.)
Unceta Elg. 19 - Zuazo 16 (Jub. nes.)
Bidasoa 29 - Tecnomeca Elg. 22 (Kad. mut.)
Bidasoa 23 - Pneumax Elg. 27 (Jub. mut.)
San Adrian 11 - IMS Elg. 23 (Senior nes.)
Tecnifuelle Elg. 35 - Escolapios 28 (Senior mut.)
Gaur Elg. 21 Loyola 24 (Jub. mut.)
Portugalete 28 Tecnifuelle 25 (Senior mul.)
Tecnifuelle 21 - Ereintza 21 (Senior mut.)

Areto Futbola

Autoescuela Record 4 - Samsung Elg. 6 (Nazional B)
Lanbroa Elg 3- Lauburu 2 (1. maila)
Samsung Elg. 4 - Altamira Bar Txutxi 7 (Nazional B)

Idarraga kafeak 5. saria

HAUNDIko jokalaririk erregularrena 00/01
JOKALARIA PUNTUAK

1-Joseba Igartua	56
2-Salaberria	48
3-Loren	35
4-Leonardo	32
5-Ugalde	31
6-Navarrete	30
7-Elkoro	24
8-Guinea	17
9-Goikoetxea	13

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Futbola, Mintxetan
Zapatua, 15
15:30 Elgoibar - Eibartarrak (Jub.)
17:15 Elgoibar - Soraluze (1. erreg.)
Domeka, 16
10:30 Elgoibar- Eibar (Aurre inf.)
12:00 Elgoibar- Mutriku (Kad.)
16:30 Elgoibar - Amaiak Bat (Neskak)

Eskubaloia, Kiroldegian

Zapatua, 15
15:00 Gaur Elg. - Aloña-Mendi (Jub. mut.)
16:30 Tecnomeca Elg. - Ereintza (Kad. mut.)
18:00 Pneumax Elg. - Ereintza (Kad. mut.)
19:30 IMS Elg. - Zarauz (Senior neska)

Milioi bat pasatxo pezeta falta dira Juan Mugerza LIX. Nazioarteko Krosaren aurrekontua osatzeko

Fgo-Toki Elkarteak Mugerza Krosa antolatzeari laga ondorengo lehen krosa korrituko da datorren urtarrilaren 20an, San Sebastian egunean. Krosaren etorkizuna zalantzan egon eta gero, Mintxeta Atletismo Taldeak hartu zituen antolakuntzako ardurak Udalaren laguntzaz, eta buru belarri aritu dira aurrekontua osatzeko lanetan. 12 milioiko aurrekontua jarri zuten helburutzat eta milioi bat pezeta inguru falta zaiela aipatu digu Anton Azpiatzuk, Mintxeta A.T.ko presidenteak. "Sarreraren dirua eta herritarren bidez lortzen duguna kontatzeke daude. Orain arte jendearen



erantzuna oso ona izan da arlo hauetan, berriak garela-eta jarrera hau ez aldatzea espero dugu. Askok pentsatzen dute Udalak antolatzen duenez berak pagauko dabala, eta hala komentatu izan didate batzuek. Baina Udalak ez du antolatzen, lagundu baizik". Lasterketa egunerako 60 bat bolondres behar direla antolakuntza lanetarako gaineratu digu

Antonek, "iaz egon zen jendeari jarrai dezatela eskatzea da gure asmoa, daukaten esperientzia oso baliagarrai baitzaigu. Jendea osatzen ez badugu, Mintxeta Atletismo Taldeko gurasoengana joko dugu".

38 lagun izan ziren Saint Laryn Morkaikorekin Konstituzioko zubian



Morkaikok antolatuta 38 elgoibartar Mizaran ziren Saint Laryn, frantsez Pirinioan, Konstituzioko zubian, Batzuek eskia edo snowa praktikatu zuten, elur askorik ez zegoela aitortu badigute ere. Beste batzuek, berriz, mendi irteerak egiteko aprobetxatu zuten. Lehen egunean Arbizon (2.831 m.) mendia igo zuten, bigarren egunean Lustou (3.023 m.) eta hirugarrenean Garlitz (2.798 igotzen saiatu ziren, gailurrera iristea lortu ez zuten arren. Azkenik, nekeak kentzeko edo besterik gabe, disfrutatzeke, ur beroetan bainuak hartu zituenik ere izan zen.

Federatzeko deialdia

Mendian federatzeko txartela eskuratzeko epea zabalik clago. Espainiar Estatuko Federatu txartela eskuratzek 6.464 pta. balio ditu. Benez gain, Piriniotarako federatu nahi izanez gero, 8.444 pta.koa da prezioa, eta azkenik, Munduko Federatu txartelak 13.252 pta. balio ditu. Espedizio, mendiko bizikleta edo eski federatu txartelak lortzeko kuoten berri Morkaikon bertan eskura dezakezue edo 943 74 02 97 telefonoan.

Zoru berria jarri du Udal Kirol Patronatuak Mintxetako gimnasioan



Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak aerobika eta step-a egiteko oso egokia den zoru berria jarri du Mintxetako gimnasioan. Pabigym izeneko zoru mota honek 5 milimetroko Iodiera du eta guztira 100 metro karratu jarri ditu Udal Kirol Patronatuak gimnasioan, 700.000 pezetako (4.207 euro) kostua izanik. Mintxetako gimnasioak guztira 800 metro karratu ditu eta hiru ataletan banatzen da: kardio-aretoa, muskulazio gela eta aerobikeko aretoa. Hilero 250 pertsona inguruk ematen dute izena bertan egiten diren jardueretan parte hartzeko.

Idazle gated

**Galtzagorri Elkarteak eta Euskaldunon Egunkariak,
Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesaz, Idazle gaztea
literatur lehiaketara dei egiten dute.**

CONDARBIAK

Norentzat

Lehiaketan parte hartzerik izango dute Gipuzkoako ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ari diren ikasleek.

Sailak

Lehiaketak bi sail izango ditu: narrazio laburrak eta poesia. Ikasle bakoitzak gehienez lan bana aurkez dezake sail bakoitzean.

Narrazio laburretan gehienez 3 orrialdeko (6.000 bat letragune) lanak onartuko dira. Poemetan, gehienez 90 lerroko lanak.

Kategoriak

Lehiaketaren sail bakoitzean bi kategoria bereiziko dira: A kategoria, DBHko lehen zikloko ikasleena; kategoria, DBHko bigarren zikloko ikasleena.

Lanak aurkezteko era

Lehiaketan parte hartzeko idazlanak ikastetxeak aurkeztu behar ditu, ikasleen izenean. Ikasgela bakoitzetik gehienez 6na idazlan onartuko dira sail bakoitzean.

Idazlanak aurkezteko epea 2002ko otsailaren 2an amaituko da.

Lan guztiak goituzen batez izenpetuko dira, baina bidaltzerakoan egilearen izen-deiturak, ikastetxearen izena eta ikasmaife ere azaldu behar dira. Datu horiek isilpean gordeko dira sarien erabakia aditzera eman a rte.

Idazlanak posta elektronikoz bidali behar dira heibide honetara: galtza.hgl@euskalnet.net

Hautapena

Jasotako fan guztien artean 10 lan hautatuko dira sail eta kategoria bakoitzean. Hautapen batzordea osatuko dute Galtzagorri Elkartearen ordezkari bik eta Euskaldunon Egunkariaren ordezkari bik.

Bozketa

Batzordeak hautatutako lanak Euskaldunon Egunkariaren web orrian agertuko dira (<http://www.egunkaria.com/literatura>), 2002ko martxparen 4tik aurrera.

Euskaldunon Egunkariko irakurleek botoa emanaz aukeratuko dituzte sail eta kategoria bakoitzeko hiru lan irabazleak. Pertsona bakoitzak boto bakarra emateko eskubidea izanen du, 2002ko maiatzaren 15a bitartean.

Sariak

Idazleentzat: lehiaketako sail eta kategoria bakoitzean sari nagusi bat eta bi sari osagarri izango dira, Gipuzkoako Foru Aldundiak emanak.

irabazleen lanak Euskaldunon Egunkarian argitaratuko dira.

Irakurleentzat: bozketan parte hartutako irakurleen artean sari bat zozketatuko du Euskaldunon Egunkariak.

Saridunak 2002ko maiatzaren 23an emango dira aditzera «Liburu Gaztea» programaren barruan Gipuzkoako Foru Aldundian egingo den saban.

Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua



ktid Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Markina-Ondarroako enpresa baterako **1+D diseinatzaile industrial** behar da. **ERREF: 61634/3.**

Azkoitiko enpresa baterako **ingeniari tekniko elektroniko** behar da. **ERREF: 66224/1.**

Durangoldeko enpresa baterako **solkailea** behar da. **ERREF: 64631/4.**

Debabarreneko enpresa baterako **2 CNC-ko Fresatzaile** behar dira. **ERREF: 62382/1.**

Urola Kostoko enpresa baterako **promozionatzailea** behar da. **ERREF: 67026/0.**

Debabarreneko enpresa baterako **promozionatzailea** behar da. **ERREF: 67021/0.**

Debabarreneko enpresa baterako **tintoreriako langilea** behar da. **ERREF: 64593/4.**

Debabarreneko enpresa baterako **trokelen diseinatzailea** behar da. **ERREF: 62391/1.**

Debabarreneko enpresa baterako **2 elektrikari instalatzaile** behar dira. **ERREF: 65693/2.**

Donostialdeko enpresa baterako **kalitate arloko audotirea** behar da. **ERREF: 64135/4.**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo "Langar-k Elgoibarren diuizenentru laguntzate baelako balera deiht: Elgaibarko Instilvuo (PebJuarisii) **943 74 80 19** edo IMH (Nora RamOn) **943 74 41 32** telefonoro.

Lana

E5KAERA

- Emakumeak bere burua eskainfen du pertsona nagusiak edo gaisoak zaintzeko. Etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko ere prest nago. Esperientzia daukat. icr **943 17 47 70**. **Merixe,(9:00etatik-14:00etara).**
- Emakumeak bere burua eskainfen du erduka, astean eguenero izan gabe, garbiketa lanak egiteko. **sr 943 74 22 01**. Araceli.
- Emakumeak bere burua eskaintzen du garbiketa lanetarako. Eskailerak eta portalak. er **943 74 35 05**. Justa.

ESKA1NTZA

- ◆ Bi pertsona behar dira: Barran kin egiteko bato, eta pinkoak prestotzeko, bestea. **sr 943 74 27 22.**
- Pertsona bat behar da elkarte batean garbiketa lanak egiteko. **sr 667 87 99 57.**
- Etxeko loncsk egifeko neska behar da (euskalduna ahal bada). **tr 669 97 72 25.**
- Etxeko lanak egiteko emakumea behar dut. **trt 658 71 08 73.**
- Euskaraz dakien emakumea behar da arratsaldeetan umeak zaintzeko. z- **615 78 44 15.**

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazkena eguerdiko 13:30a da.

Bestelakoak

- "Billabong" kartera galdu nuen Pilar Ikastetxe inguruan. Berdea efa zuria da. Aurkitu duenak udaltzaingora eraman dezda.
- Gazteentzako idazmahoa erregalafzen dui. Egoera onean. **sr 669170181.**

Etxebizitzak

- Etxebizitza salgai San Rokeko Alerpe 7an, 5. solairuan. Jantzita dago eta eguzkitsua da. **\$r 943 74 36 46.**
- **Eixer, bat** hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **tr 678 38 35 61/627 831 529.** Carmen.
- Pas de la Casan (Andorra), 4 pertsonarentzat apartamentua alokatzen dut urtarrilaren Setik 12ra bitartean, eskidzeko pistetatik gertu. 65.000 pia. **sr 687 75 60 28.**
- Pisu bila gabiltza. Elgoibarren edo inguruan. Senar-emazteek eta semea. **tr 609 26 82 07.**
- Pisu alokatuko nuke Elgoibarren. IT **636 16 61 59.** Joseba.
- Eixe bat alokatzen dut Jacan (Huesca). Eski denboraldian (thendutik apirilera). 6 pertsonentzai lekua dago, Garajea eta trasteroarekin. **tr 620 56 56 38.**

Saierosketak

- Estufa elektrikoa salgai. Berria da. Prezio onean. **mr 943 74 17 26.**
- Suzuki Santana Samurai autoa salgai. Egoera onean. 7? **678 38 35 61** (Carmen). Tr **943 79 97 72** (Gaizka).
- Bigorren eskuko attzeriak salgai: sofa, kornoda, mesillak, 1'50eko ohe-burua, lonparatxkonk. **tr 943 86 20 54.** 120:30etik aurrera deitu).
- Autoa salgai. Opel Tigra 1.4. 55-AV. Kolore gorria. Egoera oso onean. Beti garajejan egan da. Merke. **sr 606 949 658.** thon.
- "Mepansa" markako butanozko estufa salgai. Prezio onean **tr 943 74 32 84.**
- ◆ Opel Corsa 1.3 GT autoa salgai. SS-Z. 75.000 pta.a. **943 74 28 40.**
- Astra 1.600 16v salgai. **651 70 07 52.**
- *Pastor aleman arraza bereziko 3 txakurkume salgai, **mr 943 74 25 13.**
- **Pentium 1 100 M.H.Z** ordenagailua salgai. **8 M.B.** memoria RAM. CDrom. Oso merke. **tr 943 74 33 78.**
- Ford Sierra autoa salgai. SS-AK. 71.000 km. Egoera onean, **te 943 74 15 40.**
- "Dynamica" eskiak salgai. Fijazioak LOIX 1,85 cm. Salomon SX42 botak. 38 taila. **tr 943 74 31 65.**
- **Fiat Uno** autoa salgai. 90.000 km. Egoera onean. Prezioa erabakitzeko. **sr 943 74 39 50.**
- *Kerosenoazko estufa salgai. **tr 943 74 21 33.** Francisca.
- Mercedes Vito TD furgoneto salgai. 97. urtekon. 95.000 km. Lo egiteko ekipatua. 7T **943 19 25 14.**

Garajeak

- *Garajea erosiko nuke Santa Ana kalean. tar **943 74 12 73.**
- Garaje rtxia salgai Olasoko poligonon. **tr 630 63 79 78** (Martini).
- * Garaje itxia salgai San Roken, Kiroldegi aldean, **sr 943 74 21 31 ISanti).**
- Arregitorren garajea alokagai, **sr 943 74 18 81.**

Lokalak

- Marbxan dagoen faberna alokafzen da. Bezero fijaak. **sr 943 74 03 92.**
- Gazte koadrila bat gara eta lokal bila gabiltza Elgoibarren. **ar 696 03 64 39.** Lucia,
- ◆ Gazte koadrila batek lokal bat hartuko luke alokairuan. **tl. 639 99 30 11.**

Partikularrak

- Lehen Hezkuntzako kalse partikularrak ematen ditut. Talde **tr 943 74 20 94.** Yolanda.
- ◆ Ingeles filologian lizentziatiak klase partikularrak ematen ditu. **tr 943 74 10 91.** Etdar.

Agurrak

- Zorionak **Txikimoto**, korrika egifen onena zarelako. Jarraitu harrela. Zure lagunak.
- Zorionak **Julen Mujika** eta **Julen Cuestori** beraien 1.go eta 3. urtebetetzean. Lagunen partez.
- Zorionak **Oihane Osorori**, hilaren 12an, 14 urfe bete zituelako. Gurasoen eta bereziki, ahizpa Miriam eta familiakoen partez.

Elgoibarko Gazte Informazio Gunea
 Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
 Tel. 943 741 461

Ordutegia:
 Osteguna-astirala: 17:00-20:00
 Larunbata: 10:00-14:00

Farmazia - okindegia

	EGUNEZ	GAUEZ
15	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
T6	Etxeberria (Errosa rio kalean)	Etxeberria
17	Escala	Escaia
18	Bidasolo	Bidasolo
19	Etxeberria (Santa Ana kdean)	Etxeberria
20	Fernandez	Fernandez
21	Yudego	Yudego

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparantza 4, Garagarzo.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

*eguercliko 2alc arfe

OKINDEGIA

16 igandea Eizagirre



Zorionak Iskanderri, hilaren 16an 6 urte beteko dituelako. Familiakoan par ez.



♦ Zorionak Julen, bihar, hilak 15, 3 urte beteko dituzulako. Familiakoan eia bereziki, Aitor, Ainhoa efa irifsi berria den Zorioneren partez.



Zorionak Amaia Arregfiri, hilaren 12an 6 urte bete zituelako. Gurasoen eta anaia Asierren partez.



♦ Zorionak Iker, obenduoren 3an 2 urletxo bete zenifuelako, Anaia Jose Manuelen eta familiakoan partez.



Ander, zorionak zure urtebetetzean. Amama Garbi aitxibm Sabin eta familiakoan partez. Ondo bizi!



* Zorionak Ignatori, abenduaren 13an 6 urte bete zituelako. Gurasoen, Borjaren, Haritzen eta Itziarren partez, Muxu handi bat.



♦ Zorionak Maiერი, hilaren 13an 7 urte bete zituelako. Familiakoan eta bereziki, Aitor, Ainhoa eta iritsi berria den Zorioneren partez.



* Zorionak AiFanari, atzo, hilak 13, 5 urte bete zituelako. Gurasoen eta familiakoan partez.



Zorionak Enerlzi, hilaren 17an 6 urte beteko ditulako, Familiakoan, Arkaitzen eta Mainerren eta lehengusina Sarai, Eider eta Aneren partez.

Jarduerak

KONTZERTUA

Ruper Ordorikaren kontzertua, Donostiako Kultura Sailak antolatuta. Lekua: Egia KE. Epea: abenduak 20.

ARGAZKI eta PINTURA ERAKUSKETA

Juan Ugaldere argazki eta pintura erakusketa Donostiako DV galerian. "Cimas y leyendas" izeteko erakusketaren 22 lan, 4 bideo barne, jarriko dira erakusgai. Azken eguna: 2002ko urtarrilak 19.

PINTURA ERAKUSKETA

Menchu Gal artista irundaffaren pintura erakusketa Donostiako Koldo Mitxelena kulturagunean. Olio-pinturek osatzen dute gehienbat erakusketa. Azken eguna: 2002ko urtarrilaren 12an.

Ikastaroak

ANTZERKIA ETA DANTZA

Mathilgo Teatro de la Danzaren dantza-antzerki ikastaroa 2002. Urterako. Onarpen-probak: dantza-eskola, antzeppen ariketa eta elkarriketa pertsonala. Epea: abenduak 30.

GIDOIGILEEN LABORATEGIA

SGAE eta Instituto Sundancek, Gidoilarien II. Laborategian parte hartu ahal izango duten 10 gidoilari aukentuko dituzte gidoilari profesionalen garapena sustatzeko asmoarekin. Epea: 201:12k0 urtarrilaren 15a.

Sariak eta lehiaketak

MAITASUNA

Bergarako Jardun Elkarteak, euskarazko maitasun-gutunen lehiaketa antolatu du. Idatitak, eskuz nahiz makinaz, ez dira inolaz ere bi orri baino luzeagoak izango. Epea: urtarrilak 9.

KARTEL LEHIAKETA

Irungo inauteriak iraganeko kartelen lehiaketa antolatu du bertako Udalak. Epea: urtarrilak 10.

IPUIN LERIAKETA

"Cruzando Culturas" ipuin laburren V. saria gazteentzako. Obralc jatorrizkoak eta argitaragabeak izango dira, gaztelaniaz idatziak eta arrazismoarekin, xenofobiarekin eta intolerantziarekin edazionatulako gai ei buruzkoak izango dira. Epea: otsailak 28.

Lana

ADMINISTRARI LAGUNIZAILA

Itsasondo, Arama eta Alzagako Udaletako furtzionarioen plantilan hutsik dagoen administrari-laguntzaile plaza bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: abenduak 20.

GEODESIA

Herrilan, Garrato eta Komunikazioetako Departamentuaren menpeko Geodesia eta Kartografiako Ingeniari plaza bat betetzeko oposaketa, Imilan lan egiteko. Epea: abenduak 28.

OLENTZERO WTOLET XEN

BENIDUAK

24 astelehena
0:30ean

BOST ERREGALU ZORAGARRIREN ZOZKETA

RNEGALUAK JASOTZEKO, EZINBESTEKOA IZANGO
A TOLETXEN EGOTEA ETA ZENBAKIA ERAKUSTEA.

*Abenduaren 14tik aurrera, zenbaki bat
enzango dizuegu Toletxen zerbah har-
tzen duzuen hakoitzean.*

1-aguntzaileak:



BARRAN LAN EGITEKO KAMAREROA BENAR DA

OILLE Da,

Pedro Muguruza 8, behea • Tel. 943 74 19 48

14 BARIXAKUA

19:15 ARGAZKI ERAKUSKETA
Eduardo Arrillaga argazkilariaren
Sokamuturra argazki erakusketa.
Antolatzailea: Ongarri Kultur
Elkartea.
Urtarrilaren 7ra arte

15 ZAPATUA

11:00 XV. JAIOTZEN
LEHIAKETAREN
IZEN EMATEA
Ubitarteko katekisten lokalean.
14 urtetik beherakoentzat.
13:00ak arte

18:30 KONTZERTUA

Taldeak: "Legen Beltza" eta
"Luther"
Antolatzailea: Gazte Asanblada
Gaztetxean, doan

16 DOMEKIA

11:00 XV. JAIOTZA
LEHIAKETAREN
ERAKUSKETA
"Anehustegi" Zeramikak zegoen
lokalean

17 ASTELEHENA

16:00 HITZALDIA
"Produktu kimikoak gure
baratzetan, nola erabili"
Mekanikan. Antolatzailea: Elgoibar
B.H. Institutua

18 MARTITZENA

16:00 HITZALDIA
Gaia: "Produktu kimikoak gure
baratzetan, nola
Mekanikan. Antolatzailea: Elgoibar
B.H. Institutua

19 EGUAZTENA

21:30 DIAPOSITIBA
EMANALDIA
"Piriniotan Zehar"
(Benasquetik Zurizara)
Hizlariak: Joseba Elustondo eta
Iñaki Bengoetxea
Toletxe Tabernan

20 EGUENA

19:30 PARROKIAKO
JAIOTZAREN
INAUGURAZIOA
San Bartolome parrokian
Ordutegia: 17:30etatik 20:30etara
(astegunak)
10:30etatik 13:30etara eta
17:30etatik 20:30etara
(Jaiegunetan)

21 BARIXAKUA

20:00 GABONETAKO
KONTZERTUA
Musika Eskolako Ikasleak
San Bartolome Parrokian
22:30 BERTSO SAIOA
Lizaso, Egaña, Elortza eta Irazu
Herriko Antzokian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

ZINE kluba



"Ytu mama tambien"

Zuzendaria: Affonso Cuartin.
Antzezleak: Maribel Verdó, Gael García Bernal, Diego Luna.
Julio eta Tenoch heldutasunera iristeko irrikitan dauden 17 urteko
lagun gazteak dira. Kasualitatez, Luisa ezagutuko dute, 28 urteko
emaktune espainiarra. Honen edertasunaz liluraturik ligatzen
saiatuko dira, eta txantxetan dabiltzala, "Boca del Cielo" izeneko
hondartzara joateko gonbidatuko dute Luisa. Bi gazteen ezusterako
Luisak proposatnena onartuko du egun batzuk beranduago. Bi
lagunek nabi zutena lortu dute, baina arazo bat dute, hondartza ez
baita existitzen.



1.1111AKETAK

Jaiotzen XV. Lehiaketa

Parrokiako Katekesiak, Jaiotzen XV. Lehiaketa antolatu du Elgoibarko 14 urtetik beherako haur guztientzat. Gaia: Jesusen jaiotza. Materiala: nahi dena. Norberak egindakoak. Parrokiako arkupeetara eraman behar dira jaiotzak abenduaren 16an (domeka) goizeko 11:00etarako. Partehartzaileek bezperan, abenduaren 15ean, eman beharko dute izena Ubitarteko lokalean, 11:00etatik 13:00era bitartean. Jaiotzak "Anchustegi" zeramikak lagatako lokalean, Santa Ana kalean, jarriko dira Ikusgal.

IRTEERAK

Urtezahar Eguna Aitzgorrin

Morkaiko Mendizale Elkartek Urtezahar egunean, abenduaren 31n, Aitzgorri mendira joateko autobusak antolatu ditu. Bazkideentzako prezioa 500 pta. da eta bazkide ez direnentzat, 1.000 pta. Lehenbailehen izena ematea komeni da. Autobusa goizeko 8:30ean irtengo da Plaza Handitik.

DIAPOSITIBA EMANALDIA TOIHMEN



Piriniotan zehar

Joseba Elustondo eta Iñaki Bengoe txea elgoibartarrek Benasquetik Zurizara, Piriniotan zehar egindako mendi itzuliari buruzko diapositiba emanaldia emango dute abenduaren 19an, asteazkenean. Toletxe tabernan izango da zita gaueko 21:30ean.

GABONAK

Gabonetako programa

Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Senideak eta EPEH plataformak 2001. Gabonetarako programa berezia prestatu dute. Abenduaren 18an, asteartean, Gabonetako programa antolatzeko herri asanblada antolatu dute lehenik. Ekintzak antolatzeko laguntza behar dutenez, herritarren artean deialdia egiteko eskatu digute. Lehen ekintza, dena dela, Olentzero kanten entsaioa izango da abenduaren 20an, ostegunean, Kimetz Elkartean. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da entsaioa. Abenduaren 24an, berri, amnistia eta askatasunaren aldeko Olentzeroa irtengo da Plaza Handitik, 15: 30ean.

HITIALDIAK

Jardunaldi informatiboak

Produktu kimikoak gure baratzetan nola erabili izenburupean, jardunaldi informatiboak antolatu ditu Elgoibar B.H. Institutuak, abenduaren 17an eta 18an, Mekanikan. Institutuko ingurugiro osasun zikloko ikasleek, 00/01 kurtsoan zehar ikasitako "Productos quimicos y vectores de inters en salud pñhlica" moduloa landu ostean sortu ziren jardunaldi hauek. Osalan (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) eta Elgoibarko B.H.I izan dira jardunaldiok aurrera atera dituztenak, arlo honek gure inguruan duen garrantzia ikusirik.

"Scary Movie 2"

Zuzendaria: Keenen Ivory Wayans.

Antzezleak: Marlon Wayans, Shawn Wayans, Anna Faris.

Scary Moviek lagatako arrastoari jarraitzen dio bigarren zati honek ere, hau da, beldurrezko film ezagunen parodia satirikoak eginez. Oraingoan "El Exorcista" eta "El silencio de los corderos" pelikulei tokatu zaie txanda. Bestalde, zientifiko zoro bat esperientzia berriak bizitzeko irrikitan dauden unibertsitari talde batekin esperimendu zientifiko bat egiten saiatuko da. Gustu txarretik hurbil dauden umorezko "gag" edo pasarteak eta sexua dira pelikularen ardatz nagusiak.





A

ste honetako erretratua Pascual Molinak lagatakoa da. 1967ko otsailaren 19an atera zuten argazkia, Gorbea tabernan. Soldadutzara joatea tokatu zitzaizela-eta, despedida egiteko bildu zen koadrila hau. Hona hemen erretratuan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:


Faustino Pascual "pelos", Francisco Rodriguez "kiki", Marcos Acosta, Juan Martin, Pascual Molina eta Jose



I. URTEURRENA
2000ko azaroaren 4an hil zen **IMELDA SAN MARTIN ARANA-GAREN** eta 2000ko abenduaren 13an hil zen **RAMON ANSOLA jUARISTI**ren omenez, **URTEURRENEKO MEZA** izango da Parrokian larunbatean, hilak 15, arratsaldeko 19:00etan.
Joango zareteno! eskerrak alde zurretik.



ESKERTZA
2001eko azaroaren 25ean, 84 urte zituela hil zen **ILIANA LOIOLA GARATE**ren sendiak (Santi Osororen emaztea), bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



 SWEATER
HOUSE

EVERYDAY CLOTHING
Jackpot
WWW.JACKPOT.DX

COMPANY & CO

yerse®
STRETCH

 LIBERTO

RED TAB®
FILLE
TEE-SHIRT
EFFET OMBRE *W-COR*

ZONE
A NATURAL HISTORY


sodium


BATÓ
PETÓ
TRICOT


Liberto
CLUB

GARATE
JANTZIDENDA

Bartolome Deuna, 13
Tel. 943 741 129

*Bizitza
ilusion da*



MEKANOSA S.L.



**INFORMATIKAKO EKIPOEN
SALMENTA**

**INFORMATIKAKO EKIPOEN
MANTENIMENDUA**

**HORRETAZ GAIN. BULEGORAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA:**

- . Bulegoko altzariak
- Idazmakinen salmenta eta konponketa
- . Fotokopiagailuak
- . Erloju industrialak
- . Marrazketarako materiala
- . Fax zerbitzua



ERROSIIRIO, 27

TEL. 943 749 204 Faxa: 943 743 619

E-pesta: mekanosa@eushalnetner

Eskerrik asko
zuen konfidantzagaitik.

eta ondo pasa

Gabon jaiak!

